

Izen ematea 209 milioi euro tara iritsi da

**MFE-AK EROSKI-REN MENDEKO
OBLIGAZIOEKIN TRUKATZEKO ESKAINTZA
AMAITUTA, TITULUEN %62 ALDATU DIRA**

- **MFEen inbertsiogileek, hala trukea izenpetu dutenek nola tituluei eutsi dietenek, urtarrilaren 31n jasoko dituzte 2015ari dagozkion interesak; guztira, hoge milioi euro**
- **Otsailaren batean trukatu dira MFEak EROSKIren Mendeko Obligazioekin**

Elorrio, 2015eko urtarrilaren 28a.- EROSKI 2002 eta 2007 bitartean jaulkitako Mendeko Finantza Ekarpeneen %62a duten tituludunak azaldu dira horiek 12 urtera iraungitzen diren Mendeko Obligazio berriekin trukatzeko eskaintzara, zeina urtarrilaren 14an atera zuen EROSKI. Xeheago adierazita, otsailaren 1ean, EROSKI 2002 eta 2004 artean jaulkitako MFEen %63,59 trukatu du, eta 2007koen %60.

Mendeko Obligazioen truke operazioak 209 milioi euroko bolumena hartu du. Horri gehitu behar zaizkio EROSKI MFEetan eusten dituenak, 280 milioi euro; izan ere, lehengo jaulkipenak berriekin aldatu ez dituzten inbertsiogileek tituluei hasierako baldintza beretan eustea erabaki dute.

"Lortu dugu alderdi guztien artean akordio bat egitea, eta hori izan da MFEak iraungitzen diren tituluekin aldatu nahi zituztenei eskaini ahal izan zaien aukerarik onena", esan du Jose Ramon Anduagak, EROSKIren finantza zuzendariak.

Trukea egitekotan gelditu diren MFEak otsailaren 1ean aldatuko dira Mendeko Obligazio berriekin. MFEek bezala, EROSKIren Mendeko Obligazioek kotizatu egingo dute AFBE Errenta Finkoko Merkatuaren SEND plataforman, tituluari likidotasuna emateko helburuz.

Inbertsiogilearentzako informazioa truke prozesuan

EROSKI, jaulkitzaile den aldetik, inbertsiogilearen arretarako telefono bat jarri du, izen emate epean zalantzak argitzeko MFEekin jarraitu edo iraungitzen diren Mendeko Obligazio berriekin aldatu zer egin ez dakitenentzat.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)

Inbertsiogileek egin dituzten galdera gehienek zerikusia zuten MFEen baldintzekin: egiaztatu nahi zuten ea erositako baldintza berberetan eutsiko ote zaien, eta horren erantzuna baiezkoa da. Beste galdera ez hain ugari batzuk izan dira egiaztatzeko ea trukea MFEen balio nominalaren gainean aplikatzen zen, zehaztuta zegoen bezala. Beste galdera batzuek, berriz, zerikusia zuten izen ematearen tramitazioarekin; hori argitzeko, Iberclearren sartuta dauden eta haien gordailuak dituzten finantza entitateetara jotzeko esan diegu.

Hogei milioi euro, interesen hurrengo ordainketan, urtarrilaren 31n

Urtarrilaren 31n, MFEen inbertsiogileek, hala trukea izenpetu dutenek nola tituluei eutsi dietenek, 2015ari dagozkion interesak jasoko dituzte; guztira, hogei milioi euro. Ordainketa horretan, %3,271koa izango da interes tasa 2002ko, 2003ko eta 2004ko jaulkipenatarako, eta %2,771koa 2007korako.

Ordainketa hori kontuan edukita, 2002an EMFEetan inbertitu zuenak hasierako inbertsioaren %70,25 jasoa izango du, dagoeneko, interesetan. %63,4, berriz, 2003ko inbertsiogileak; %57,8 2004koak; eta %36,4 2007koak.

EROSKI bere burua indartzeko MFEen lehen jaulkipena egin zuenetik (2002an), kooperatibak zuzen ordaindu dizkie urteko interesak inbertsiogileei; dagoeneko, 332,8 milioi euro guztira.

"Ekarpenen jabeek urtero jaso dute beren inbertsioaren ordainsaria betiere tituluaren balio nominalaren arabera, finantza merkatuko kotizazioa edozein izanda ere", adierazi du Anduagak.

%3,022 emango dute interesetan Mendeko Obligazio berriek

2016. urterako, MFEen interes tasa %3,022tan finkatu da (%0,022 + %3ko diferentziala) 2002 eta 2004 bitarteko jaulkipenatarako eta %2,522 (%0,022 + %2,5eko diferentziala) 2007korako.

Bestalde, Mendeko Obligazio berriak, iraungikorak izanik, Euriborraren errentagarritasuna gehi %3 ere eskaintzen dute, eta, hala, 2016. urteko interesa honela geldituko da: %3,022 (%0,022 + diferentzialaren %3).

Interes horiek datorren urtean abonatu dira urtarrilaren 31n.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
OSCAR GONZALEZ URIARTE

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

ZIORTZA BERISTAIN
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[On line prentsa aretoa](#)